

B

BARREN

TOKIKOM

Butano-desafioa Mendaron



ATSEDENEAN ETA ETXE-GERIATRIAN ADITUAK

MERKEALDIA

**Ehun-gaietan
%25eko deskontua!**

**Neguko
bi izara erostean
bigarrengean %50eko
deskontua
lortuko duzu!**



BASERRIZ BASERRI, KANTUAN ETA ESKEAN, OTSAILAREN 4an
Elgoibarko Izarraren Santa Ageda koruetan parte hartu nahi?

- Arratsaldeko 14:30ean elkartuko gara Kalegoen plazan.
- Bi taldeetan banatu ondoren, Elgoibarko baserri-auzoetara abiatuko gara kopia kantari, eta gaueko 21:30ak arte jerdungo dugu.
- Egunari amaiera emateko, Alastiako soziedadera joango gara afaltzera eta indarrak berreskuratzera.

Koruetan parte hartu nahi duzuenok, URTARRILAREN 28a baino lehen eman behar duzue izena.
943 741 626 (Imanol) - elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.com

Animatu, denontzako tokia dago-eta!



Ainara
Sedano

Epa, Noe, Errusian adopzioei ipintzen ari diren mugei buruzko berri bat ari naiz entzuten telebistan BARRENERako artikulua pentsatzen ari naizela, eta horri buruz idatzi nahiko nituzke lau berba. Badauzkat inguruan seme-alabak

nahi eta eduki ezin dituztenak, eta zoritxarrez (beraiek sufritzen dutenagatik) gero eta gehiago direla esango nuke. Ezbeharraren erdian, guraso faltan dauden haur askorentzat aukera ona lirateke horiek, baina sistemaren trabak nahi baino handiagoak omen dira bikote askorentzat; tramiteak, dirua, adina, sexu bereko bikotea izatea, etab.

“Zenbat ume ote dauden besarkada bat amesten, eta zenbat bikote emateko desiatzen”

Nik ez daukat ezaguera psikologikorik; ez dakit ume baten bizian zein eragin izango lukeen bi ama edo bi aita izateak, aita eta ama bat izan ordez. Inguruko guztiok ume hori naturaltasun osoz tratatuko bagenu, ume horrek ezberdintasunik sumatuko ote luke? Umeak berak edo gainerako guztiok izango genuke arazoa? Eta adinari buruz, ez al litzateke hobea epe motzago batean bada ere (zenbat eta nagusiagoak garen bizi gutxiago geratzen zaigulako aurretik) norbaiten maitasun txoraa jasotzea inorena ez jasotzea baino? Munduan zehar bidaiatu dudanetan, ume dexente ikusi ditut behar handia pasatzen, familia egoera komplikatueta... eta izugarriko pena sortzen dit bikote pilo batek eman dezaketan maitasuna urte pilo batean zehar galtzen egotea. Zenbat ume ote dauden besarkada eta muxu bat amesten, eta zenbat bikote horiek emateko desiatzen. Ezingo genuke prozesua pixkat erraztu, eta inori eman gabeko muxu horiek errekerperatu?



Noemi
Otegi

Egia da, bai, ume asko daudela munduan familia bila. Edonolako familia gainera! niri bost, nola dagoen osatua familia hori. Eta, era berean, bikote asko daude ume horiek etxean hartzeko prest. Baina ez naiz ni gauza guztiz libre uztearen aldekoa. Umeak adopzioan hartzea ezin liteke merkatu plaza bihurtu. Nola arautu asmatzea ez da batere erraza, baina muga batzuk edo neurri batzuk jartzearen aldekoa naiz, nahiz ziurrenik gaur dauden arau eta mugak nire irizpideetatik ere urrunegi dauden.

“Umeak adopzioan hartzea ezin da merkatu plaza bihurtu”

Badakit, bai, mundu honetan gauza gehienetarako behar dela baimena edo titulua, haurrak izateko izan ezik, eta hori ez dela bidezkoa. Baina familia beharrean dauden umeak hemen bertan ere baditugu. Harreran hartu ditzakegu geure etxeetan, familia egoera berezietatik datozelako. Badira ere jaioberriak ez diren umeak, baina horiek ez dira umeak hartzeko prest daudenen gogokoenak. Eta ezin ahaztu ezta ere gaixotasunak dituztenak. Bestalde, batzuk besteak baino politagoak izango dira, arraza batzutatako haurrak hartzeko eskaera handiago izango da ziurrenik... ez dakit, Ainara.

Nola egin haurren adopzioa umeekiko eta haien herrialdeekiko errespetuzkoa izan dadin; nola lortu ume horiek bere iragana eta etorkizuna uztartzea, zer diren eta nondik datozen ahazteke. Eta badakit, bai, umeak hartu ditudala aintzat, beharbada ama izatearen ondorioz. Baina ez ditut ahazten umeak izan nahi dituztenak ere. Horientzat nire besarkadarik goxoa hemendik.

B

BARREN

BARREN Elgoibartik kanpo jasotzen dutenentzako oharra

- Euskal Herria eta Espainia: **22€** (bazkideek **18€**)
- Europa: **32,50€** (bazkideek **26€**)
- Europatik kanpo: **44€** (bazkideek **35€**)

Harremanetarako: 943 744 112 (Ainhoa) edo barren@elgoibarkoizarra.com

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako enantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Ainhoa Mendibil
HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia
PUBLIZITATEA Leire Rubio
MAKETATZAILEA Zaloa Arnaiz
MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue
KOLABORATZAILEAK Iñigo Lazkano, Anjel Bazterretxea, Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Justo Arriola, Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jesus Mari Makazaga, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga
INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.860 ale
LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:



Laguntzaileak:



Gipuzkoako Foru Aldundia



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako enantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

2013. urteko Juan Muguerza krosekoeen esker ona

Idatzi honen bidez, Elgoibarko Nazioarteko Juan Muguerza Krosaren LXX. edizioa Mintxeta A.T. batzordeak, eskerrak eman nahi dizkie, nola edo hala, euren laguntza eskaini duten erakunde eta enpresa guztiei. Izan ere, haien esku-zabaltasunari esker, berebiziko arrakasta izan zuen 2013ko urtarrilaren 13an egin zen krosak.

Era berean, eskerrak eman nahi dizkiogu Elgoibarko herriari; alde batetik, ekitaldi hori antolatzerako orduan emandako laguntzagatik, eta bestetik, gure herrira krosean parte hartzeko asmotan etorri ziren atleta guztiei egindako harrera bero eta adeitsuagatik.

Horregatik guztiagatik, Elgoibarko herriaren izena, aste betez, mundu osoko kirolaren ikuspuntuan egon da, hedabideak Elgoibarren zer gertatzen ari zen adi egon baitira.

Krosa herriarena da, eta herriak maitatzen jarraituko duela espero dugu. Edizio honetan Euskadiko krosik onena izan gara; eta antolaketari eta kirol arloari dagokionean, estatuko hobereatarikoa.

Hortaz, lanean jarraituko dugu, datorren urtea ere, aurtengoa bezain ona edo hobea izan dadin. Horrela bada, Mintxetan ikusiko dugu elkar, 2014ko urtarrilean. Mila esker.

Mintxeta Atletismo Taldea ☺

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gaztelerez datorren eskutitz argitaratuko.

**Beraseta baserriko atarian, erabilitako kondoia lagatzen ditu jendeak:**

"Lotsagarria da! Sexu harremanen oso aldekoa naiz, eta pozten naiz jendeak kondoia erabiltzen di-tuela jakiteaz, sexu seguruaren aldekoa naizelako, baina erabiltako kondoia zakarrontzira bota behar dira. Beraseta ingurura joaten da jende asko intimitate apur baten bila, eta hori ondo dago, baina mesedez, ez dezatela ingurua zikindu".



Arriaga auzoko autobus geltokia oso arriskutsua da: "Arriaga auzoan autopistako zubiaren azpian geratzen da autobusa, Mendarotik Elgoibarrerako norabidean. Ez dago markesinarik, eta euria egiten duenean erabat bustitzen gara autobusaren zain, baina hori ez da okerrena. Autobus geltoki hori oso arriskutsua da, oinezkoek errepidea gurutzatu behar dutelako etxera joateko. Ingurune hori iluna da, eta autoak abiadura handiz ibiltzen dira. Zebrabidieren bat, semaforo bat edo bidea pasatzeko zubiren bat egin beharko litzateke, oinezkoen segurtasuna bermatzeko".

Iñiguez Karkizao kaleko farola bat argirik gabe dago aspalditik: "Pare bat hilabete izango dira dagoeneko Iñiguez Karkizao kaleko farola bat argirik gabe geratu zela. Etxebizitzan atzeko aldean dago farola, eta agian udaletxeko arduradunak ez ziren konturatu-ko argirik gabe dagoela, baina auzokoek eskertuko genuke bonbila hori lehenbailehen aldatzea".

**Ikastolako Kontseilu Errektoreak eskerrak eman nahi dizkie Gabon Zahar egune-ko txosnan parte hartu zu- tenei:**

"Txalo bero bat Gabon Zahar egunean Ikastolaren txosna antolatzen eta bertan lanean aritu zireten guraso guztioi; ez zenuten lan makala egin! Bestalde, mila esker bertara joan zireten herritar eta kanpotarrei ere; giro po- lita sortu zenuten denon artean".



Txalo bero bat Gazte Asanblad- dari: "Domekan Gazte Asanblad- dak antolatutako Txokolatea eta Txurroak zineforumean egon nintzen. Egin duten lan- gatik zoriondu eta eskertu nahi ditut asanbladako kideak. *Paris Texas* pelikula benetan gomen- dagarria iruditu zitzaidan, txur- roak eta txokolatea primerako- ak zeuden, giroa epela eta batu- ginen jendea paregabea. Zorion- ak eta segi fin-fin!"

Txalo bat Udalari, Txanka- koa zubia berri duela: "Zorionak Udalari Txanka- koako zubia hain ondo jar- tzeagatik. Merezi du zubi horrek eta baita egunero- egunero bertatik pasatzen garenok ere. Era berean, eskerrak eman nahi dizkio- gu Udalari, Santa Klarara doan lurrazpiko tunelean argiak jarri eta pasabidea garbitu dutelako".



Urtebetean %20tik 30era igo da Elgoibarren gaika sailkatuta jasotzen den hondakin kopurua

Hondakin organikoen %24 bereizten da edukiontzi marroiari esker

Hondakinen gaikako bilketaren inguruko datuak jakinarazi zituen Elgoibarko Udalak martitzenean. Eman-dako datuen artean bi nabarmentzen dira: batetik, gaika biltzen diren hondakinen portzentajea %20tik %30era igo dela urtebetean, eta edukiontzi marroiak ezarri zizutenetik hondakin organikoen %24,6 bereiztea lortu dela. Iazko urtarrilean hasi zen Elgoibarko Udala hondakin organikoa gaika biltzen. Ordura arte edukiontzi berdean jasotzen zen, eta kalkulatu da lehen edukiontzi berde horretan jasotzen zena-ren %43 inguru dela hondakin organikoa. Hain justu ere, horren %24,6 da gaur egun berrerabiltzeko moduan jasotzen dena. Kilotan, 32.421 kilo jaso ziren, esate

baterra, joan zen abenduan.

2012an jarri zituzten lehenengo edukiontzi marroiak Elgoibarren. Lehenengoak herri-gunean jarri zituzten eta auzoetara zabaldu zituzten gero (urrirako herri osoan zeuden). 4.398 etxe edo familia gonbidatu zituzten hondakin organikoen gaikako bilketan parte hartzera, eta gaur arte 1.919k eman dute izena (familien %44k). Kopuru esanguratsua dela adierazi zuen Alfredo Etxeberria alkateak prentsaurrekoan, baina edukiontzi marroiaren erabiltzaile kopurua handitzeko lanean jarraituko dutela nabarmendu zuen, "herriaren inplikazioa eta borondatezko parte-hartzea bermatzen dituen sistema delako eta horrek dagoen sistemarik egokiena egiten duelako". Bilketa sistemak "erosoa, eskura-

garria, merkea eta garbia" izan behar duela gehitu zuen horren harira, eta 2013rako lau helburu nagusi jarri zituen: erabiltzaileen leialtasuna ziurtatzea, erabiltzaile kopurua handitzea, jangela kolektiboen gaiari heltzea (enpesak eta merkataritzako eta ostalaritzako establezimenduetan) eta herritarren inplikazioa areagotzen saiatzea, hondakin gutxiago sortzeko eta gaikako bilketaren tasa handitzeko.

2014rako helburu bat jarri dute: Elgoibarraren sortzen den hondakinaren %50 jasotzea gaika. Horregatik, Alfredo Etxeberria dei egin die herritarrei edukiontzi marroirako izena ematera, eta pizgarri gisa, hondakin organikoen gaikako bilketan parte hartzen dutenei ez diete aurten zaborraren gaineko zergan igoerarik aplikatuko.

Baserriz baserri santa eskean irteteko deia egin du Elgoibarko Izarrak



Otsailaren 4an irtengo dira Elgoibarko Izarrakoak baserriz baserri santa eskean. 14:30ean batuko dira Kalegoen plazan, eta bi taldetan banatuta joango dira Elgoibarko baserri auzoetara koplak kantatzera. Eguna amaitzeko, Aiestia-ko soziedadean afalduko dute. Koruetan parte hartu nahi duenak urtarrilaren 28rako eman beharko du izena 943 741626 telefonora deituta edo elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.com helbidera idatzita.

San Anton eguna ospatu zuten eguenean elgoibartarrek

Filatelia erakusketarekin hasi ziren joan zen zapatuan San Anton jaiak, eta atzo izan zen patrioiaren eguna. Goibel esnatu zen eguna, baina, hala ere, herrian gelditu zirenek izan zuten zertaz gozatua. Emudafek, Elgoibarko Musika eta Dantza Federakuntzak, kontzertu berezia eskaini zuen, esate baterako, eta Musikeneko Saxofoi Ensenblearen saxofoi doinuak ere entzun ahal izan ziren Herriko Antzokian.



Asteko irudia **Euritea**

Deba ibaiari begira pasa genuen martitzen egun osoa. Elgoibarko eta Mendaroko udalek alerta deiak jaso zituzten SOS Deiak zerbitzutik, eta larrialdietarako protokoloak ezarri zituzten. Urak hartzeko arriskuan zeuden lekuetatik autoak erretiratu arazi zituzten, baina zorionez, urak ez zuen aparteko kalterik eragin. Mendaron, Garagartza auzoan pasa zituzten estuasun handienak. Hazi-hazita zetorren Deba ibaia eta Kilimon erreka ezin zuen ibairatu. Ondorioz, Trinitate kalean ura pilatzen hasi zen, hirugarren argazkian ikus daitekeen moduan. Hala, iazko azaroaren 6ko uholdeen mamuak indarra hartu zuen bizilagunen artean. Elgoibarren, berriz, Deba ibaiak gainezka egin zuen Andikanotik Maltzagarako bidean, eta baita Altzolan ere. Argazki gehiago: www.elgoiBARREN.net-en.



Mendara

Saharako errefuxiatuentzako janaria biltzeko kanpaina

Mendealdeko Saharako errefuxiatuei laguntzeko janari-bilketa hasi du Euskal Herriko Otsailak 27 elkarteak. Piztu itxaropena izena jarri diote kanpainari, eta Tindoufeko (Aljeria) errefuxiatuek elikagaietan dituzten premiak asetzea da helburua. Arroza, pasta, lekaleak, azukrea, hegaluzea zein sardinak oliotan eta konpresak behar dituzte. Lagundu nahi duenak hilaren 31ra arteko epea du. Elgoibarren, Netto eta Eroski supermerkatuetan jasoko dituzte eskatutako produktuak. Diruz lagundu nahi dutenentzat, aldiz, honako kontua zabaldu dute Euskadiko Kutxan: 3035 0080 94 0800054177. Informazio gehiagorako: 619 02 9648.

CD Elgoibarko zozketako otarrak banatu dituzte

CD Elgoibarrek banatu ditu Eguberrietan zozkatutako otarrak. Lehen saria Ion Gabilondok jaso du, eta bigarrena Laura Egurrolak.



Euskal Herriko mus txapelketako kanporaketak

Martxan da aurten ere Euskal Herriko mus txapelketa, eta gaur gauean, Mendaroko kanporaketa jokatuko dute. Aitzbeltz txabernan jokatu dira partidak, 21:00etatik aurrera. Hilaren 26an, aldiz, Elgoibarren jokatuko dute kanporaketa, Lanbroa tabernan, 16:00etan. Ondoren, herri bakoitzeko txapeldunek Gipuzkoako kanporaketa jokatuko dute otsailaren 23an, Seguran, eta Euskal Herriko finala Agurainen izango da martxoaren 9an. Interesatuek Aitzbeltzen edo Lanbroan eman dezakete izena. Informazio gehiagorako: 635 730 920 (Karlos).

EGIN APUSTU

Butanoa bizkarrean hartu eta udaletxetik Lizarpera nor azkarrago iritsi apustu egin dute Mendaron urtarrilaren 26rako (11:30). Hiru lagun lehiatuko dira: Unai Salegi *Sarube*, Andoni Zubiaurre *Gorixo* eta Jurdan Ezenarro. 26 kiloko 'erreminta' bihurriari eskuekin heldu eta bizkarrean bigungarririk jarri gabe, 4,6 kilometro pasako bidea egin beharko dute. Batez beste %10eko desnibela gainditu behar dute, eta tartean %32 inguruko pendizen bat ere bai.



Ainara Argoitia

Beste hamaika desafio bitxiren kasuan moduan, mahai baten bueltan egosi zen hilaren 26ko apustua ere. Urrexun egindako gizon probetako entrenamendutik bueltan, Arriagan gelditu ziren Mendaroko taldeko lau lagun, Usatorren afari pasara egiteko, eta hantxe hasi zen dena, iazko urriaren 19an. Haietako bat, Jurdan Ezenarro, aspaldian zebilen besteak tentatzen. Aurrez, koadrilan ere erabilia zuten butanoarekin apustua egiteko kontua, eta elkarri eskua emanda ere egon ziren Elgoibarren egindako afaloste batean, baina haietako batek atzera egin eta bertan behera gelditu zen dena.

Usatorren, baina, desafioa bota zien Sarubek. Butanoa bizkarrean hartu, Lizarperaino igo, eta han, aizkoraz bi kana erdiko ebagi behar zituen berak, eta butanoa lurrean laga gabe, erreleboka gora igo eta trontza amerikanoarekin hamar kana erdiko ebagi beste biek. Bat, biren kontra. "Irabazteko aukera handia geneukan, baina Gorixok ez zuen onartu", dio Jurdanek. Erreleboa ematean, estropezu egin eta butanoak lurra ukitzezko arriskua ikusten zuen Gorixok, eta hordagoa jo zuen: baldintza berdinetan lehiatu

behar ziren edo ezer ez. Erronka aldatu zuten, eta kontratu handi asko sinatu diren modu berean, paperezko ahozapi batean jaso zuten ahoz hitzartutakoa. Landa erretegiaren afari bat jokatu zuten. Azkena gelditzen dena egingo da afariko gastuen %70aren kargu, eta bigarrena gainerako %30arena.

Mendaroko Landa erretegiaren afari bat jokatu dute, baina hori baino gehiago dute jokoan: ohorea

Apustu aurretik egi gutxi entzungo dituen jakin arren, hirurak batu ditu hitzordura BARREREN. Zaila dago zerbait ateratzen, baina gutxien-gutxienez ondoan zein lagun eramango duten aitortu dute haietako bik. Aitzol Urain izango da Jurdanen botilero, koadrilako lagun bat Saruberena eta Ugaitz Mugerza Gorixorena. Komeni denean, xaxatzea

eta hauspoa lehertu ez dakien nor bere erritmoan eramatea izango da haien lana. Ez dute egiteko makala. Izan ere, apustulariek euren aitortu dute horrek kezkatzen dituela gehien, elkar aisatzeak. Hau da, aurkariari segitzeko ahalegin horretan pot egiteak. Indarrez eta hauspoz ondo dabilta hirurak ere, eta zangoz ere ez dabilta herren. Horrenbestez, burua hotz mantentzen asmatzen duenak irabazteko aukera handia izan dezakeela uste dute. Hirurak dira, baina, plazan ibilitakoak. "Plazan hazi egiten gara gu", esan du Sarubek.

Ezaugarri fisikoetan ere ez dute alde handirik: 40, 31 eta 26 urte dituzte Sarubek, Jurdanek eta Gorixok hurrenez hurren, eta pisuan, berriz, 95, 76 eta 78 kilo dira. "Neu nago desabantailan, pisu gehiago altxatu behar dut-eta: neureak, eta gainetik, butanoarenak", esan du Sarubek, baina aurkariak ez diote sinistu. Eta apustulariek ere ez nonbait, gehienek bera josten dutelako faborito. Mendaron bertan hainbat trabes daude eginda tabernetan, eta Usatorre tabernan ere ehun euro jokatua ditu batek, Sarubek bigarregoa bi minutu kendu ezetz.



Unai Salegi 'Sarube', Jurdan Ezenarro eta Andoni Zubiaurre 'Gorixo'.

Apustularien jokoa

Adar jotze handia darabilte. Euren dohaiez galdetzean, aurkariarenak zerrendatzen hasi dira, eurenak isilduta. Indartsuena Sarube dela dio Jurdanek, baina burugogorreen Gorixok irabazten diola. "Hil behar badu ere, hil egingo da hau, etxeokak semerik gabe lagata", bota du lagunari begira jarrita. Sarubek, berriz, Gorixoren gaztetasuna eta Jurdanen odol-berotasuna eta kemena azpimarratu ditu. Gorixok, berriz, Sarube ikusten du zangoz indartsuen, baina hanka luzeenak Jurdanek dituela dio eta horrenbestez pauso luzeena ere berak duela. Bistan da elkar zaintzen ibili direla, eta butanoarekin edo gabe, gogor jardun dutela entrenatzen azkeneko hilabete eta erdian. Argibide larregirik ez dute eman ordea. Lunbarrak edo gerrialdea indartzeko entrenamendu batzuk egin ei dituzte, eta korrika ere ikusi dituzte, baina butanoarekin egin dituzten saioak gaez egin dituzte hirurek ere, ilunetan, ezkutuan.

Entrenamenduez galdetzean, Jurdanek aitortu du birritan egin duela saio osoa butanoarekin. Sarubek dio hiru aldiz saiatu dela bera, eta zortzi bat saio egin ei ditu Gorixok. Butanoa lurrean lagatzeko aukera izan badu-

te berez, baina sorbaldatik ez jaisten saiaturko direla diote hirurek aho batez, nahiz Gorixok aitortu duen berak badakiela ezinezkoa izango zaiola. Ez diote sinistu lagunek.

Gezurra eroso ibili ohi da egi itxuran, eta ordubeteko jardunean egia osorik nekez esango zuten apustulariek, baina bada kontuan hartzeko erreferentzia bat: laz, Alkortako lgoeran, Sarube gailendu zen korrika, 26:31eko denborarekin [Jurdanek 27:23ko denboran bukatu zuen, eta 27:42an Gorixok]. Alkortatik Lizarpera ere joan egin behar da, baina, eta 26 kilorekin edo gabe egitea ere ez da gauza bera. "Antenan gora zoazela, 26 kilo barik butanoak 50 kilo pisatzen dituela ematen du", bota du Gorixok bat-batean.

Eguraldiak ere zeresan handia izango duela azpimarratu dute apustulariek. Euriari eta haizeari diote beldur handiena. "Ni neu bustiarekin gaizki ibiltzen naiz oso", aitortu du Sarubek. "Orduan kantuan hasiko gara gaurtik", bota du aldamenetik Jurdanek, Gorixori keinu eginez. Umorerik ez dute falta gaur, baina apalduko zaie apustu egunerako. Irabazteko haizea eta borrokarako grina, ordea, nekez.

UNAI SALEGI



ADINA:
40 urte
PISUA:
95 kilo

Bere kiniela: Gorixo ikusten du faborito. 42 minutuan egin deza-keela bota du, eta bigarrenak ere 44 minutuz azpitik egingo duela dio.

JURDAN EZENARRO



ADINA:
31 urte
PISUA:
76 urte

Bere kiniela: Gorixo ikusten du faborito. Uste du, gainera, 44 minututik behera egingo duela.

ANDONI ZUBIAURRE



ADINA:
26 urte
PISUA:
78 kilo

Bere kiniela: Sarube ikusten du faborito, eta Jurdan eta bere artean joko estua egongo dela uste du. Uste du hirurek egingo dutela 50 minutuz azpitik, baina ez du uste inor 44 minututik behera jaitsiko denik. Lehenengoak 44,5 minutu bueltan egingo dituela dio.

FLORENTINO LARRAÑAGA, apustuzalea



Astebete falta da apusturako. Ondo baino hobeto ezagutzen dituzu hirurak ere. Zein ikusten duzu garaile?

Proba gogorra izango da, baina trabesa egitekotan Saruberen [Unai Salegij] alde egingo nuke nik. Estu egongo da, dena den.

Andoni [Zubiaurre] ere oso gertu ibiliko da. Jurdanek ere zarata gogorra dauka, baina nik esango nuke pisu horrekin joateko indar gutxitxoan berak izango duela. Indartsuena Sarube da hor, eta orain, gainera, finduta ere badago... Nik uste dut Gorixo eta Saruberen artean egongo dela jokoa, eta alde gutxi egongo dela gainera bien artean. Minutu erdi ingurukoa.

45 minututik behera egingo ei dute hirurek. Zer diozu?

Ezta pentsatu ere! 50 minutuan ailegatu gabe geldituko da norbait hor. 45 minutuz azpitik sartuko da lehenengoa, eta bigarrena 45,5-46 minuturen bueltan ibiliko da. Joko horretatik kanpo gelditzen denak etsi ere egingo du seguruenik. Hiru izatean elkar izorratzera irtengo dira, eta horrek denboran luzatzea ekarriko du. Banaka azkarrago egingo lukete ia seguru.

INAZIO GARATE, apustuzalea



Astebete falta da apusturako. Zuk ere ondo baino hobeto ezagutzen dituzu hirurak. Zein ikusten duzu garaile?

Baten alde egitekotan nik Gori-xoren alde egingo nuke, gazte-enaren alde, baina kontuz Ezenarrokekin ere, karga handiak


erabiltzera ohituta dago eta ezustekoa eman dezake. Butanoa lurrean laga gabe igotzeko ahalmen handiena zeinek daukan ikusi beharko da hor, eta baliteke hor Sarube bestek baino gehiago izatea.

Zenbat denboran egingo du lehenengoa?

Eguraldiak zeresana izango du, baina 46-47 minuturen bueltan ibiliko da lehenengoa. Hala ere, hiru dira, eta horrek badauka arrisku bat: aldamenekoa lehertzeko asmotan korrika hasi eta norbera lehertzekoa. Plaza gizona izan behar da hor, eta burua hotz mantentzeko gai denak abantaila izango du. Baina egia esan, plazan gogorrak direla erakutsitakoak dira hirurak ere. Hala ere, ezin dute bigungarrikerik erabili eta butanoa esku hutsekin heldulekutik helduta eramate hori ikaragarri gogorra da.

INAXIO ARREGI, apustuzalea

Apustuzalea da Inaxio Arregi. Haren apustuen artean Azpeititik Ernio gainera butano bonbonarekin egin zuena eta 104 kiloko burdin zatia sorbaldan hartu eta Urko mendira igo zenekoa daude. 27 urte zituen butano-desafioa egin zuenean. Urtebete aurretik, 47 urteko azkoitiar batek, *Kaxerok*, egindako marka ordubete eta hogeita bost minutuan ondu zuen.



Distantzia kontuan hartuta, Mendaron egin behar dutenaren aldean handia izan zen zuk egin zenuena, baina edola ere, zer egiten da zailena halako apustuetan?

Nire kasuan gogorrena, beharbada, distantzia bera izan zen. Urruti da-goela Ernio, alajaina!. Mendarokoa motzagoa da, baina hor hiru lagun dira, eta beste estutu bat izango da. Proba motza da, eta presio handia egingo diote elkarri. Horrek asko zaildu dezake.

26 kilo ditu butano beteak. Indarraz gain zer beste behar dute mutilek?

26 kilo ez da pisua, baina butanoa ez da batera erreminta erraza. Bulto handi xamarra da, ikaragarri mugitzen da, eta bukaerarako min handia egiten du. Indarra behar da, bai, baina hori baino garrantzitsuagoa da psikologikoki gogorra izatea. Ikaragarri mugitzen da butanoa, eta sorbaldan buru parean eraman behar da beti. Horie ez dakit zer egingo dien lau kilometroan, baina hemeretzi kilometroan niri behintzat min handia eman zidan buruan. Oso gogorra da, ikaragarri gogorra. Buruaz gain sorbaldek eta gerriak asko sufritzen dute. Hemeretzi kilometroan behin bakarrik jaitsi nuen butanoa sorbaldatik, hamargarren kilometro-

an. Ez nuen, hala ere, lurrean laga. Aulkian jarri eta mantalean hartu nuen. Eta laga ere, ingurukoak lagatzeko esan eta esan ari zitzaizkidalako izan zen, bestela seguruenez joan egingo nintzen. Horren distantzia motzean, baina, iruditzen zait ez dutela butanoa laga ere egingo. Ez lukete laga beharko behintzat.

Adinak eta norbere pisuak zenbateraino esan nahi dute zerbeit?

Asko esan nahi dute. Ni neu ere 77-80 kilo buelta naiz eta horrek asko esaten du bai korrikarako bai oinez ibiltzeko. 20 kiloren aldea asko da, hori ere eraman egin behar da-eta. Iruditzen zait 80 kilo inguruko mutilak errazago eramango duela butanoa.

Ezagutzen duzu lekua? Zenbat denboran egingo du lehenengoa?

Ez naiz behin ere ibili inguru horretan eta ezin dizut esan. Kalkulua egin genezake. Korrika behar den denborari hogeita bost bat minutu gehituta, baina ez dakit ba. Korrika hasiko da bakarren bat, beharbada, baina ez du luze iraungo. Gehiago izango da aurkaria itotzeko. Norberak berea egin behar du hor, eta burua hotz mantentzen asmatzen duenak estu hartuko ditu bestek.



KIPRUTO ETA BURKA GARAILE, MUGERTZA KROSEAN

Consensus Kipruto 19 urteko kenyar gazteak irabazi zuen Mugertza krosa gizonezkoetan, eta emakumezkoetan, berriz, Gelete Burka etiopiarra izan zen azkarrena. Euria eta hotza egin arren, elgoibartarrek ez zuten hutsik egin eta Mintxetako harmailak jendez gainezka egon ziren domekan. Euskal Herriko eta nazioarteko korrikalaririk onenetarikoak ekarri dituzte aurten ere Mintxeta atletismo taldekoek Mugertza krosera, eta maila bikaina erakutsi zuten guztiek. Ondorengo orrialdeetan dituzue Mugertza krosaren 70. edizioko argazkiak. Erretratuak: **BARREN** astekaria eta Jairo Berbel. Sailkapenak eta argazki gehiago ikusteko: www.elgoibarren.net

Atleta kenyarrak, lasterketa hasi aurretik.



Burka, lasterketarako prestatzen.



Senior mutilak, Mintxetako berdegunean.



Kipruto eta Komon, lehia bizian.



Jose Antonio Ruiz elgoibartarrek ere hartu zuen parte krosera.



Nazioarteko korrikalaririk onentsuenak izan ziren Mintxetan.



Italiako korrikalariek maila ona eman zuten juniorretan. Dini izan zen azkarrena.



Iñaki Sagarna, Mintxeta taldeko korrikalaria.



Ikusleak Mintxeta baserri inguruan.



Angel Lopez elgoibartarra.



Claudia Estevezek irabazi zuen juniorretan.

Ivan Fernandez izan zen lehen euskalduna.

Burka, Cherono eta Cheptai.

elgoibar ikastola

Konfiantzan IKASTOLA

HH 0 (2012an eta 2013an jaiotakoak)

martxotik ekainera hasteko

matrikula zabalik

urtarrilaren

14tik 25era

Hilaren 7an hasi zen ofizialki merkealdia Gipuzkoa, Araba eta Bizkaian. 2012ko emaitza kaskarreki buelta emateko balioko dien itxaropena dute dendariak.

Zer abantaila ikusten diozu herriko dendetan erosteari?



Lurdes Avila
41 urte

Nik nahiago dut erosi beharrekoa herrian erostea, azken baten dirua herrian gelditzen delako. Dendek, gainera, bizia ematen diote herriari eta hori gustatzen zait. Ematen duten tratua ere askoz hobea da hemengo dendetan saltoki handietan baino, baina hala ere, kanpora ere joaten naiz batzuetan.



Fran Lopez
44 urte

Erosi nahi dudana herrian topatzen badut nahiago dut hemen erosi, jakina, baina egia da Elgoibarren ez dagoela aukera handirik eta horregatik kanpora joan behar izaten dugula. Hala ere, kirola egiteko oinetakoak eta halakoak saiatzen naiz beti herrian erosten.



Silvia Hernandez
37 urte

Tratua askoz hobea da herriko dendetan, eta horregatik eguneroko erosketak herrian egiten ditut, baina merkealdian gehiago joaten naiz kanpora, hirian eskaintza handiagoa izateaz gainera, deskontuak handiagoak dirrelako. Gainera, astean zehar ez dut dendaz denda ibiltzeko astirik izaten.



Enkarni Migales
44 urte

Ahal dudan guztietan herrian egiten ditut erosketak, herriko dendek balio erantsi bat dutelako: tratua askoz hobea da; pertsonalagoa da. Dendariek aholkatu ere egiten digute, eta nik neuk eskertzen dut. Gauza bat dauka txarra: dirurik ez dutela bueltatzen erositakoa gustuko ez baduzu.



SARA BERNEDO, Txanaka elkarteko presidentea

“Herriko dendarion kompetentzia zuzenena Internet da gaur egun”

Merkatarien elkarteko presidente zaren aldetik, zer balorazio egiten duzu 2012. urteaz?

Gogorra izan da denontzat, baina esfortzu handiarekin aurrera egin dugu.

Eguberrietako kanpainak salmenta urte txarrari buelta emateko balioko izan du?

Datorren astean daukagu bilera merkatariorik Eguberrietako kanpainak eman duenaz hitz egiteko, eta beraz, ez naiz ausartzen balorazio sakon bat egitera, baina esango nuke gutxienez jendea ibili dela dendetan.

Merkealdiaren ondoren etor daitekeenak kezkatuta ditu galdekaturako merkataria asko. Zer aurreikusten duzue?

Merkealdia amaitzen denean, denboraldi berria hasiko da eta dendariok gure esfortzu guztia jarriko dugu, gure bezeroak komertzioetan sartzeko. 2013. urtea gogorra datorrela bistakoa da, baina asmatuko dugu aurrera egiten. Ezin gara negatibo jarri. Mugitu egin behar gara, eta egoera horri buelta emateko bideak asmatu. Lan asko egin beharko dugu, esfortzu handia, baina egingo dugu.

Zer balio erantsi dauka herrian erosteak?

Dendek bizia ematen diote herriari. Gurea, gainera, salmenta pertsonalizatua da, eta iruditzen zait askoz errazagoa dela konfiantza daukazun denda batean erostea, edozein arazo daukazula ere, atentzioa berehalakoa delako. Gertutasuna da gure balorea. Saltoki handietan beste bat gehiago zara, eta guk, aldiz, mimatu egiten ditugu erosleak, haiek gabe ez garelako ezer. Nik uste dut elgoibartarrak erosoago sentitzen direla konfiantzazko dendetan erosten.

Saltoki handiak denda txikien kompetentzia zuzena dira, eta orain Internet batu zaie. Kezkatzen zaituzte?

Gure kompetentzia zuzenena Internet da gaur egun. Jende gazteak, batez ere, sekulako joera dauka Internetez erosteko, eta mugitu beharra daukagu, horri aurre egiteko.

Zer profiletakoak dira zuen bezeroak?

Elgoibarkoa herrian kontsumitzen duen bezeroa da berez. Bezero onak dira, gainera; fidelak. Eta horregatik eskerrak eman nahi dizkiet merkatarion izenean, eskertzekoa delako herriko dendekiko duten fideltasuna.

Erretratu zaharra



1975

Aste honetako erretratua Gemma Monrealek ekarri du BARRENeko erredakziora. 1975-76 urte ingurukoa da argazkia, eta San Roke inguruan aterata dago. Ikusten den bezala ingurune guztia elurtuta dago, eta hirukote hori elurraz gozatzera igo zen San Roke aldera.

Ezkerretik eskumara: Marisa Solares, Gemma Monreal, Ana Maria Corballeda.



I. URTEURRENA

MARI CARMEN GABILONDO ECHAVE

*Mundua ez da beti jai,
inoiz tristea ere bai,
baina badira mila motibo
gogoratzeko alai.
Bestela datozen penai
ez diet zurik bota nahi,
ni hiltzen naizen gauean behintzat
egizue lo lasai*

2012ko urtarrilaren 19an hil zen. I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, urtarrilak 19, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko San Bartolome parrokiari. Joango zaretenoi eskerrak alde zuretik.



IÑAKI ARMENDARIZ

Filatelikoa

San Anton jaien harira zigilu erakusketa antolatzen du urtero Altzolatarren Dorretxea filatelia elkarteak, eta aurten ere halaxe egin dute. Domekara arte egongo da zabalik erakusketa. Aurten hagina zuhaitzari eskaini diote erakusketa, eta naturarekin erlazionatutako bildumak ekartzen ahalegindu dira. Gai bitxia, baina aldi berean interesgarria, Iñaki Armendarizen hitzetan.

“Aitortu behar dut haginaz maitemindu naizela apur bat”

Zer dela eta erabaki duzue erakusketa haginari eskaintzea?

2011. urtea zuhaitzen urtea izendatu zuten Europan, eta horren harira, Europako herrialdeetako posta bulegoek zigilu bereziak atera zituzten. Orduan ezin izan genion erakusketa zuhaitzari eskaini, beste konpromiso batzuk genituelako, eta aurtengorako gorde genuen gaia. Zuhaitza aukeratzen hasi ginenean, udaletxe atzean zeuden zuhaitzek atentzioa eman zidaten. Haginak zirela esan zidaten, eta haiei buruzko informazio bila hasi nintzen. Berehala harrapatu ninduen, eta erakusketa haginari eskaintzea erabaki genuen. Aitortu behar dut haginaz maitemindu naizela apur bat.

Zergatik iruditu zitzaizun hagina interesgarria?

Gizakiarentzat oso garrantzitsua izan da hagina. Oso egur ona dauka, moldatzeko erraza, eta aldi berean, sendoa. Lehen, tresnak egiteko erabiltzen zuten, bereziki. Geziak, arkuak edota aizkorak egiten zituzten gizakiek, ehizara joateko. Haginak urte asko har ditzake, eta tresna horiek bizi guztirako irauten zuten. Hagin espezie batzuk lau mila urtera arte bizi daitezke. Biziraupen luzea dute, baina oso motel hazten dira. Haginaren adina jakitea ez da erraza, denborarekin enborra hustu egiten delako, eta moztean ez dira eraztunak agertzen.

Tresnak egiteko erabiltzen zen hagina, baina heriotzarekin ere lotzen zen garai batean, ezta?

Bai, heriotzari oso lotuta dago. Hagina pozoitsua da, eta norbere buruz beste egiteko ere erabiltzen zuten garai batean. Arerioaren eskue-tan erortzen zirenean haginaren enborreko molekula batekin egindako infusioa hartzeko ohitura zegoen. Hori dela-eta, ohikoa da hilerri inguruetan hagina ikustea. Era berean, biziarekin lotzen dute beste kultura



batzuetan, eta Asturiasen adibidez, seme-alaba bakoitzeko hagin bat landatzeko ohitura dute. Asturiasen haginaren aldeko elkarte dago, eta haginaren kulturak indar handia dauka. Urtero egiten dute jai berezi bat. Euskal Herrian ere garrantzia handia eduki du haginak, eta Gernikako haritzaren aurretik, erabaki garrantzitsuak hartzeko Durangon bilduten ziren agintariak, hagin baten azpian.

Sendatzeko ere balio du, baina, haginak.

Bai. Ikerketa asko egiten ari dira azkenaldian, eta badirudi minbizia sendatzeko balio duela haginaren enborreko toxina batek. Hori dela eta, hagin asko landatu dituzte azken urteotan. Irlandan eta Britainia Handian hagin asko dago, eta Australian ere asko ari dira landatzen.

Egoibaren ere baditugu haginak...

Bai, jende askok ez du jakingo baina udaletxe atzean dauden zuhaitz handi eta eder horiek hagina dira. Orain dela 33 urte inguru landatu zituzten hor, baina ordurako 10 bat urte izango zituzten. 50 urtetik aurrera fruituak ematen ditu haginak. IMHko museoan ere beste espezie bat dago, plazakoak baino zaharragoa.

Aurtengo erakusketako bildumak, hortaz, naturari loturikoak dira?

Ahalegindu gara horretan, baina ez dugu lortu. Bi bilduma lortu ditugu naturarekin lotutakoa. Hamasei bilduma ditugu, eta gaiak denetariakoak dira. Euskal Herriko eta Espainiako hamabost filatelikok hartu dute parte.

‘Mozorrotzea ez da disfrazatzea’ hitzaldia eskainiko du Oier Araolazak

Martitzenean izango da, 20:00etan, musika eskolan

Karnabalen edo inauterien gaineko hitzaldia eskainiko du Oier Araolazak (Elgoibar, 1972) martitzenean, urtarrilaren 22an, Elgoibarren. Musika eskolako auditoriumean izango da hitzaldia, 20:00etatik aurrera.

Dantzan.com-eko kide da Araolaza, eta honela azaldu ditu hitzaldiaren nondik-norakokak: “Neguko Festetan kokatu, eta horren inguruan zenbait galdera egingo dizkiogu gure buruari. Zer zerkusi dute Halloweenek, Santa Klausek, Olentzerok edo Santa Agedak inauteriekin? Zer da mozorrotzea? Disfrazatzea gauza bera da? Zer dira arketipoak eta zer zerkusi dute inauteriekin? Zer egingo dut aurten go inauterietan, mozorrotu ala disfrazatu?”.

Hartz Euskal Dantzari Taldeak antolatu du hitzaldia, eta mozorrotzearen eta disfrazatze



aren artean dauden ezberdintasunen berri emango du Oier Araolazak. Kazetaritza eta Antropologia ikasketak dauzka Araolazak, eta azken urteotan dantzaren komunikazioan eta kudeaketan buru-belarri aritu da Dantzan.com elkartearen.

Jon&Sugramas taldeak Londresen eman zuten kontzertua joan zen asteburuan



Londresen izan dira Jon&Sugramas taldeko kideak. Urtarrilaren 12an kontzertua eskaini zuten hango Euskal Etxean, Arrasateko Bitter Honey eta London-eko Milk Bar taldeekin batera. Jon Gurrutxaga (ahotsa eta gitarra) eta Ruben Irigoyen (bateria) elgoibartarrek eta Miguel Laguna (gitarra) eta Iñigo Gorritxategi mutrikuarrek osatzen dute taldea. Gurrutxagak adierazitakoaren arabera, esperientzia polita eta errepikatze modukoa izan da. Led Zeppelin taldearen "Communication breakdown" abestiaren bertsiorekin amaitu zuten emanaldia.

‘Joanetorrieroak’ antzerkia domekan

Miski elkarteak eta Elgoibarko Udalak *Joanetorrieroak* antzezlanaren antolatu dute domekarako. 16:30ean hasiko da saioa, Herriko Antzokian. Umeek 3,5 euro ordaindu beharko dituzte, eta nagusiek 5 euro. Sarrerekin lortzen den dirua Miski elkartearentzat izango da. Munduan zehar bidaia ikusgarria egin ostean, Mr. Red & Mr. Blue pailazoez beraien eraldi magikoak kontatuko dituzte.

Hilaren 26an hasiko da Korrika Kulturala

Korrika Kulturala hilaren 26an hasiko da, euskara ikasleei Usurbilen egingo zaien omenaldiarekin. Korrika 18k txotx erraldoia prestatu du egun horretarako. Sarrerak AEK euskaltegian eros daitezke, 10 eurotan. Informazio gehiagorako 607 601 423 zenbakira deitu edo *elgoibar@aek.org* idatzi daiteke.

Elgoibarko dantzariak Legazpiko auresku eta soinu zahar txapelketan

Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolako ikasleek Legazpiko auresku eta soinu zahar txapelketan hartu zuten parte joan zen asteburuan. 7 eta 11 urte bitartekoetan bosgarren egin zuten Gaizka Urangak. Estreinako txapelketa izan zen Urangarentzat, eta oso maila ona eman zuten. 11-15 urte bitartekoetan, Eneko Gonzalezek bigarren postua eskuratu zuen. Nesketan, Ainhoa Gomez eta Irati Marcos 18. eta 19. postuetan sailkatu ziren, hurrenez hurren, 7-11 urte artekoen mailan.



ARKAITZ EGAÑA

Ehiztaria

Espainiako Ehiza Xehetxapelketa irabazi du Arkaitz Egaña ehiztari elgoibartarrak. Txapelketa hori irabazi duen bigarren euskalduna izan da. Garaipen horri esker, txapelketako hurrengo ediziorako txartela lortu du Egañak.

“Sekulakoa izan da Espainiako txapelketa irabaztea”

Espainiako Ehiza Xehetxapelketa irabazi duen bigarren euskalduna izan zara.

Bai, hala da. Lehenengo edizioa euskaldun batek irabazi zuen, eta azkena neuk. Ustekabeko kontua izan zen. 2011n Euskadiko Txapelketa irabazi nuen, eta horri esker lortu nuen Espainiako Txapelketan parte hartzea. Sailkatze hutsa sekulakoa izan zen niretzat, eta ez nuen espero irabaztea.

Sorian jokatu zenuten txapelketa. Nola joan zen eguna?

Astebete aurretik joan ginen partaide guztiok ingurua ezagutzera. Asteburua han pasatu genuen denok elkarrekin. 21 lagunek hartu genuen parte. Oso maila handiko ehiztariak ziren denak ere. Eguna iritsi zenean uste baino lasaiago nengoan. Hemengo txapelketetan presio handiagoa izaten dut, baina han ez neukan galtzeko ezer. Ondo egin nuen lo, eta lasai hasi nuen txapelketa.

Lasai hasi zinen, baina epailearekin arazoak izan zenituen, ezta?

Bai, ez nuen tratua ederra pasatu! Murtziako epailea tokatu zitzaidan. Mutil gaztea, eta itxuraz, sasoiari zegoena. Tankera ona hartu genion. Epailearen lana ehiztariak dena legez egiten duela ziurtatzea da, ez da lan zaila, baina fisikoki indartsu egotea ezinbestekoa da. Nik banekien zein zonaldetara joan nahi nuen ehizara, aurreko astean ingurua aztertu genuelako. Irteera lekutik urrun samar zegoen, eta azkarregi joaterik nahi ez nuen arren, korrika apur bat egin beharra zegoen. Suabe-suabe hasi nintzen, buruarekin jokatuz, sei orduko txapelketa luze egiten delako. Berehala konturatu nintzen epaileak ez nindue-

la jarraitzen. Atzean geratzen zen, gero eta atzerago, eta ni haren zain egon behar nintzen. Niregana iristen zenean, sekulako arnasa hotsa entzuten nion, eta ez zitzaidan gusatzen. Uztailetik egon nintzen txapelketarako entrenatzen, eta ezin nuen sinistu gertatzen ari zitzaidana. Hiru epaile zeuden erre-serban, eta epailez aldatu nahi nuela esan nion. Orkatilan mina zeukala esan zidan, baina nik esan arte berak ez zidan ezer esan. Walki-talkiarekin hasi zen epailea kontrolgunea deika, eta inork ez zion erantzuten. Oso urduri jarri nintzen une hartan, baina azkenean etorri zen beste epailea. Denbora asko galdu nuen, eta gainera, elurra hasi zen! Nire onetik irtenda nengoan, eta korrika hasi nintzen, presaka. Epaileak berak lasaitu ninduen.

Zenbat pieza bota zenituen?

12:30ak alderako bi eper neuzkan. Beste zona batera joan nahi nuen, baina ez neukan denbora askorik. Hara bidean uso bat eta erbi bat ehizatu nituen, eta epaileak berak esaten zidan irteera gunetik oso urrun geundela. 15:00etan amaitzen zen txapelketa, eta berandu iristeagatik penalizazioak daude. Hamabost minutu beranduago iristen dena txapelketatik kanpo geratzen da. Emaizta ona neukala esaten zidan, berak walki-talkitik entzuten zituen-eta besteen emaitzak. Buelta zeta erabaki nuen. Ehiza gutxi zegoela kexatu ginen partaide guztiok.

Txapelketa irabazi zenuela jakitean, zer sentitu zenuen?

Sekulakoa izan zen, bai niretzat eta baita etxekoentzat ere. Laugarren edo bosgarren



postua ere ontzat ematen nuen, eta irabaztea izugarria izan zen. Etxekoek asko sufritu zuten epaile aldatetaren kontu horrekin eta arbelean ez zutelako nire emaitzarik apuntatzeko. Normalean, epaile bakoitzak bere partaidearen berri ematen du eta arbel baten apuntatzeko dute, ikusleek jakin dezaten txapelketa nola doan. Nire koadroan ez zuten ezer jartzen, eta etxekoek uste zuten ez nuela ezer harrapatu. Halako batean jarri zuten nire emaitza, eta lehen postuan nindoala ikusi zuten! Oso pozik jarri ziren. Ni iritsi eta gainerako ehiztariak iritsi arteko denbora oso luzea egin zitzaidan. Momentu polita baina luzea izan zen, benetan. Sekulakoa izan zen, oso hunkigarria.

Txakurrak ere paper garrantzitsua betetzen du ehizan. Nolako da zure txakurra?

Setter txakurrak ditugu guk etxean, ehizarako txakur onak, baina txapelketetarako ez zeuden oso ondo prestatuak. Beldurtu egiten ziren. Orain daukadana, aldiz, jende aurrean harrotu egiten da, eta oso ondo moldatzen da txapelketetan. Hala ere, Espainiako txapelketara *Lagun* eraman nuen, txakur beteranoa, esperientziaduna. Lan ona egin zuen.


Aurrera begira, zein dira zure asmoak?

2012a baino hobea ez da izango aurtengoa, baina ahal dudana hoberean egiten saiatuko naiz. Espainiako txapelketetarako sailkatuta nago, eta gainerakoetan maila ona ematen saiatuko naiz.

Gaur gauean jokatuko dituzte San Anton pilota txapelketako finalak

22:00etan hasiko dira partidak, Ikastolako frontoian

San Anton pilota txapelketa iritsi da bukaerara. Aurten hiru elgoibartarrek hartu dute parte txapelketan, eta horietako batek jokatuko du finala nagusien mailan: Txurrukak Mikel Goñirekin osatuko du bikotea, eta loritz Arrieta eta Ansotegi izango dituzte aurrez-aurre. 22 urte azpikoe-tan, bestalde, Ugalde eta Imazek Iraitz Arrieta eta Ansotegiren kontra jokatuko dute. Gaur gauean jokatuko dituzte finalak, 22:00etan hasita, Ikastolako frontoian.



Apirilaren 14an jokatuko da hirugarren Mendaroko mendi lasterketa

Mendi lasterketa antolatu du Mendaroko Txirriindulari Elkarteak, apirilaren 14rako. 24 kilometroko ibilbidea izango da, 23 kilometro mendiz eta bat asfalto gainena, eta korrikalariek 1.350 metroko desnibel positiboa gainditu beharko dute. 10:00etan hasiko da lasterketa. Interesatuak www.herrikrossa.com helbidean eman dezakete izena aurrez, 16 euroan. Hala ere, gehienezko kopurura iritsi ezean, egunean bertan ere egongo da izena emateko epea, baina 20 euroan. Informazio gehiagorako: <http://mtemendaro.wordpress.com/>.

Lehenengo mailari eusteko helburuarekin hasi du denboraldia Mekatar xake taldeak

Zazpi urteren ostean, lehenengo mailan hasi du denboraldia Mekatar xake taldeak, eta mailari eustea da aurtengorako beraien helburua. Mutrikun jokatu zuten lehenengo jardunaldia joan zen astean, eta 1-3 irabazi zuten elgoibartarrek. Bihar, Donostian jokatuko dute, Gros taldearen kontra. Mekatar taldekoak xake eskolak ematen dituzte martitzenetan Pista Beltzeko lokalean, 19:00etatik aurrera.



EMAITZAK

FUTBOLA

Baskonia 0 – Haundi 0 (3. maila)
Amara Berri 1 – Elgoibar 5 (Neskek)
Elgoibar 3 – Beasain 2 (Erreg.)
Lazkao 1 – Elgoibar 1 (Jub.)
Elgoibar 3 – Beasain 0 (Kad. A)
Ilintxa 1 – Elgoibar 2 (Kad. B)
Aloña Mendi 3 – Elgoibar 4 (Ohorezko inf.)
Zarautz 7 – Elgoibar 0 (Inf. Txiki)

SASKIBALLOIA

Aluminios Alberdi 50 – Viento Sur 46

PILOTA

San Anton Txapelketa

Arrieta - Ansotegi 22 / Unamunzaga-Aizpurua 16
Arrieta-Galarza 22 / Atxotegi-Altuna 14

Udaberri Txapelketa

Lagunak 11 – Zestoa 22 (1. mailako nag.)
Gazteleku 22 – Lagunak 10 (2. mailako jub.)

Pala

Lagunak 25 – Urnieta 14 (2. mailako nag.)
Urretxu 17 – Lagunak 25 (2. mailako nag.)

ESKUBALLOIA

Ereintza 18 – Tecnifuelle 22 (Sen. neskek)
Gabaz Elg. 32 – CD Egia 23 (Sen. mut.)
Beristain Elg. 35 – Aloña Mendi 22 (Jub. mut.)
Ikus Elg. 19 – Ikus Elg. 17 (Kad. neskek)
Aterpe 9 – Murgil 39 (Inf. neskek)
Zarautz 30 – Cometel Elg. 13 (Inf. neskek)
Txarriduna Elg. 30 – Aloña Mendi 31 (Kad. mut.)
Pneumax Elg. 18 – Bergara 32 (Kad. mut.)
Bankoa Elg. 32 – Deca 20 (Inf. mut.)
Aloña Mendi 6 – Alkideba Elg. 22 (Aleb. mut.)

AGENDA

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 19

10:00 Elgoibar – Urola (Inf. Txiki)
12:00 Elgoibar – Kostkas (Jub.)
16:30 Haundi – Beasain (3. maila)
18:30 Elgoibar – Lazkao (Neskek)

ESKUBALLOIA (Kiroldegian)

Zapatua, 19

16:00 Astigarraga Elg. – Aloña Mendi (Kad. neskek)
17:30 Lauko Elg. – Aloña Mendi (Jub. neskek)
Domeka, 20
11:30 Alkideba Elg. – Pulpo (Aleb. neskek)
12:45 Tecnifuelle Elg. – Leizaran (Sen. neskek)

PILOTA

Barixakua, 18

20:45 Lagunak – Mundarro (2. mailako kad.)
Zapatua, 19
11:00 Lagunak – Intxurre (3. mailako kad.)
11:45 Lagunak – Azkoitia (2. mailako jub.)
12:30 Lagunak – Mundarro (Pala)

LANA

ESKAERA

- Emakumea eskaintzen da umeak zein nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. ☎ **660 041 099**
- Emakumea eskaintzen da umeak zein nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. Orduka, eta gauzez ere bai. ☎ **680 121 252**
- Gizona baserriko lanak egiteko edo ezinduek zaintzeko prest. Etxean nahiz ospitalean. ☎ **688 812 845**
- Emakumea eskaintzen da umeak edo adinekoak zaintzeko edota garbiketa lanak egiteko. ☎ **645 557 141**
- Emakume euskalduna nagusiak zaintzeko prest. Etxean nahiz ospitalean. Goizez, arratsaldez edota orduka. ☎ **660 551 781**
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. Etxean zein ospitalean. ☎ **699 609 190**
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Paperak legez ditut. Esperientziaduna. ☎ **670 551 133**
- Portalak garbitzen edo adinekoak zaintzen egingo nuke lan. Orduka. ☎ **636 517 025**
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Orduka, interna nahiz asteburuetan. ☎ **636 362 251**
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Orduka, interna nahiz asteburuetan. ☎ **632 253 170**
- Emakumea lan bila. ☎ **685 375 377 / 638 527 915 (Jakeline)**
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. ☎ **648 505 256**
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. ☎ **685 724 861 / 943 748 899**

- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. ☎ **681 065 683**
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. ☎ **605 720 298**
- Gizona nagusiak zaintzeko edo baserrian zein tabernan lan egiteko prest. ☎ **686 077 316**
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. ☎ **646 821 678**
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. ☎ **608 474 923**
- Logopedia, Lehen Hezkuntza eta Hezkuntza Premia Bereziko klase partikularrak ematen ditut. Irakaslea naiz. ☎ **627 704 124 (Eukene)**
- Magisteritzan diplomatu naiz eta EGA titulua daukat. Klase partikularrak ematen ditut. ☎ **666 329 728**

ETXEBIZITZAK

- Etxea alokatzen dut Errosario kalean. ☎ **639 353 331**
- Pisua hartuko nuke alokairuan. ☎ **608 474 923**
- Etxea alokatzen dut Pedro Migel Urruzuno 8an. ☎ **943 741 275**
- Neska batek etxea hartuko luke alokairuan. Premiazkoa. ☎ **686 420 642**
- Etxea hartuko nuke alokairuan. ☎ **605 667 923**
- Bikote batek pisua hartuko luke alokairuan. ☎ **659 093 967**

BESTELAKOAK

- Eskumuturrekoa aurkitu dut Urazandin. Patri eta Denis izenak jartzen ditu. ☎ **669 681 995**

- Azken hileko zapatuko ferian lepokoa galdu nuen. Txapa bat dauka eta Lucia jartzen du. ☎ **607 348 828**
- Kontsumo bajuko berogailuak salgai, erdi prezioan. Tamaina desberdinetakoak. ☎ **658 729 235**

KINTOAK

- 68an jaiotako elgoibartarrek kinto bazkaria egingo dute urtarilaren 26an, Sigma jatetxean. 13:00etan batuko dira Ametsa tabernan, ondoren argazkia aterako dute, eta 14:00etan joango dira jatetxera. Interesatuak 50 euro sartu beharko dituzte kontu korronte honetan: 3035 0007 21 0071125749

GARAJEAK / LOKALAK

- Lokala alokatzen dut Erretxindin. 125m2. Gazteek erabiltzeko aproposa. ☎ **649 446 716**
- Mendaro erdigunean lokal komertziala alokairuan. Guztiz egokitu, erakusleho handiarekin. Merke. ☎ **686 045 321 (Marta)**
- Garajea alokatzen dut Pista Beltzean. Leku onean dago, eta autoa bertan garbitzeko aukera ematen du. ☎ **679 843 332**
- Garajea alokatzen dut Jausoron. Ate automatikoa eta giltz automatikoa. ☎ **663 409 726**
- Lagun talde bat lokal bila dabil. ☎ **699 022 573**

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.

- Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: **18€** (alokairua) - **20€** (salmenta). Autoak saltzea: **15€**. Bestelakoak: **8€**. Iragarkiari erretratua jarriz gero, **6€ gehiago** ordaindu behar dira.

- **BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:** Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: **12€** (alokairua) - **15€** (salmenta). Autoak saltzea: **12€**. Bestelakoak: **6€**. Iragarkiari erretratua jarriz gero, **5€ gehiago** ordaindu behar dira.

Jarri ezazu zure publizitatea

barren.publi@elgoibarkoizarra.com

B

**BARREN
astekarian
943 744 112**





• Zorionak, **Elene**, asteazkenean 3 urte egin zenituelako. Etxekoan partez.



• Zorionak, **potxolol**, Ondo-ondo pasa zure bigarren urtebetetzean. Patxo handi bat, familiakoan partez.



• Zorionak, **Estanis**! Igandean, danborrada egunean, 4 urte beteko dituzu! Muxu handi bat, etxeko guztion partez.



• Zorionak, **Julen Blanco Gantxegi**, hirlaren 19an 3 urte beteko dozuz-eta. Muxu handi bat, etxekuen partez.



• Zorionak, **Aritz**, hirlaren 16an 7 urte egin zenituelako. Etxekoan eta lagunuen partez.



• Zorionak, **Nora**! Oso ondo pasatu genuen zure urtebetetze egunean. Muxu asko, familiakoan partez.



• Zorionak, **amama**, asteazkenean zure eguna izan zelako. Muxu asko familiakoan partez, eta bereziki, Haizearen partez.



• Iritsi da etxeko '**gizonaren**' bigarren ahate-txoa. Zorionak, eta be-jondeiala!



• Zorionak, **Noa**, printzesa, gaur zure lehenengo urtebetetzean! Muxu potolo bat, etxeko guztien partez.




• Zorionak, **Ibon**, mutil handi! 4 urte potolo! Muxu bat.



• Zorionak, **Nuhaa**, urtarrilaren 9an 3 urte potolo egin zenituelako. Jarraitu gure bihotzak poztan. Patxo handi bat. Etxekoak.



• Zorionak, **Oihane**, atzo 6 urte potolo bete zenituelako. Etxekoan, lagunuen eta bereziki neba Asierren partez.



• Zorionak, **Manex**, zurre bosgarren urtebetetzean. Segi horrela. Patxo bat, denon partez.



• Zorionak, **Maren**! Gure etxeko txikiak ia urtetxo bat! Askok maite zaitugu. Etxekoan eta bereziki ahizpa Gadearen partez.



• Zorionak **aititza Paulo, Iker eta Nere**, urtarrilaren 15ean, 17an eta 30ean 79, 9 eta 2 urte beteko dituzuelako. Muxu handi-handi bana, familiakoan partez.

AGURREN ATALEKO PREZIOAK:

Erretratu bakarreko agurra 4€. Argazki bikoitza 6€, hirukoitza 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12 €.

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:

Erretratu bakarreko agurra 3 €. Argazki bikoitza 5€, hirukoitza: 7€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 10 €.

Argazkiak **eguzten eguerdia** baino lehen ekarri behar dira **BARRENEKO** bulegora, 12:00ak baino lehen, edo barren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali.



MEKANOSA

Errosario, 27
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX



CORDON VILARCHAO

San Roke, 7 behea
Pol. Glaso - Glasape kalea, 18 - 25 eta 26 moduloak
Tel. 943 743 670

DEKORAZIOA

Karpo eta berrero estaldura
Zolak ezarria
Lanaburu eguzi, aluminio, PVC
Pisura orokorra



18 barixakua

Karta jokoa

21:00 Mus txapelketa
Mendaroko Aitzbeltz tabernan jokatuko dute, Euskal Herriko Txapelketako kanporaketa.

Bideo forum

21:30 'La fuente de las mujeres'
Loredi Salegik dinamizatuko du saioa. Kafea eta pastak banatuko dituzte. Kultur Etxean.

Kirola

22:00 San Anton pilota txapelketa
Ikastolako frontoian.

20 domeka

Antzerkia

16:30 Joan etorrieroak'
Mr. Red eta Mr. Blue (Eriz eta Marsel magoak), Herriko Antzokian

22 martitzena

San Bizente

11:00 Meza
San Rokeko ermitan. Ondoren salda eta txorizoa banatuko dituzte.

Hitzaldia

20:00 'Mozorrotzea ez da disfrazatzea'
Oier Araolazak eskainiko du hitzaldia, musika eskolako auditorioan.

24 eguena

Ikusentzunezkoa

20:00 'Elgoibartarrak Kongon'
Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

25 barixakua

Erakusketa

18:30 Gemma Monrealen erakusketa
Kultur Etxeko erakusketa gelan egongo da ikusgai, otsailaren 17ra arte.

ZINEA


'El Hobbit'

18, barixakua: 22:15
19, zapatua:
19:00/22:15
20, domeka: 19:00
21, astelehena: 21:30



'Reality' (Ongarri zinekluba)

24, eguena: 21:30



OKINDEGIA

20 domeka:
IBARRENEA

Fernandez
Herriko enparantza 4,
Garagartza (Mendaro)
Tel: 943 756 142

Ibañez
Rekalde, 1 (Soraluze)
Tel: 943 751 638

Zabaleta
Kalebarren, 9 (Soraluze)
Tel: 943 751 384

BOTIKA ORDUTEGIAK

9:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

Egunez

9:00 - 22:00

18 Ibañez
19 Garitaonandia
20 Garitaonandia
21 Etxeberria
22 Fernandez
23 Yudego
24 Zabaleta
25 Barrenetxea

Gauetz

22:00 - 9:00

Yudego
Garitaonandia
Garitaonandia
Etxeberria
Barrenetxea
Yudego
Garitaonandia
Barrenetxea



Bazkide izateko bigarren epea zabalik.

Urtarriletik uztaileira 30€. Familia ugariak eta familia ugariak ez direnen bigarren seme alabek %30eko deskontua. Informazio gehiago: Ludotekan

Just dance
wii txapelketa
Gaztelekuan, urtarrilaren
26an eta 27an.
Izena emateko azken
eguna: urtarrilak 20.



MGS

Aseguruak

Kalikatatea eta Zerbitzuan Finkatua
ZU ETA ZURE FAMILIAREN LASAITASUNERAKO ASEGURUAK

MARIA LUISA URAIN ARAKISTAIN

Jausoro plaza 1 · 20870 Elgoibar
T/ 943 742 699 · F/ 943 741 235
murain@mgs.es

Aseguru Agente eskusiboak C079415339944W

JULIAN MUJIKA izan da urtero bezeroen artean zozketatzen den telebistaren aurtengo irabazlea

ASEGURU MOTA GUZTIAK

- Istripu aseguruak
- Istripuak errentarekin
- Gaixotasun aseguruak
- Auto eta etxe aseguruak
- Aurretze eta jubilazio planak
- Bizitza aseguruak
- Diru inbertsioak
- * "Vida fondo" (unit link)
- * Burtsa
- * Inverseguro (kapital ziurtatuarekin)
- * PPA desgrabatzeko eta kapital ziurtatua



www.mgs.es

ZEZEN-BIDE



AUTO ESKOLA

Autorako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezu!

Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela berria!



ORDUTEGIA

10:00etatik-12:30era

15:00etatik-20:30era

**5 EGUNEKO
TEORIKAKO
IKASTARO
TRINKOAK**

LEKUALDAKETA

San Frantzisko, 52 behea

Tel. 943 742 720

20870 ELGOIBAR

- Euskarazko eta gaztelarazko klaseak
- Credikutxarekin ordaintzeko erraztasunak



PAGOAGA S.A.

- ◉ Iturgintza
- ◉ Berokuntza
- ◉ Gasa
- ◉ Igeltseritza
- ◉ Aroztegia
- ◉ Proiektuak



***Saltoki berria zabaldu dugu
Pedro Migel Uruzuno kalean!***

BULEGOA ETA ERAKUSKETA

Pedro Migel Uruzuno, 8 - Tel.: 943 740 512

Faxa: 943 743 565 - tienda@pagoagasa.com - www.pagoagasa.com

BILTEGIA:

San Antolin, 13 - Tel. eta Faxa: 943 740 279 - almacen-taller@pagoagasa.com

20870 ELGOIBAR